

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure aplikazioa publiko guztiari zuzenduta dago, txikienetatik helduenetara, mundu guztiak supermerkatuetan edo tokiko dendetan erosten baitu. Gure gomendioa da 12 urtetik aurrera erabili ahal izatea, haurrak ez direlako bakarrik joaten erosketak egitera edo ez dutelako zuzenean erosiko. Bestalde, gure aplikazioa, neurri handi batean, egunero behar dituzten produktuen prezioak alderatu ahal izateko denbora gutxi duten pertsoneri zuzenduta dago.



Horregatik, gure bezero nagusiak lanpetuta dauden pertsonak dira, eta ezin dute nahi adina denbora egon auzoan edo hirian dituzten supermerkatu edo denda guztien prezioak alderatzen. Bestalde, adinekoek edo mugitzeko arazoak dituztenek gure aplikazioa gustura erabiliko dute, izan ere, ezin dituzte oinez distantzia luzeak egin eta zuzenean nahi duten dendara joango lirateke dendaz denda produktuak konparatzen ibiltzearen ordez. Gainera, ezin ditugu ahaztu lekua ezagutzen ez duten edo gure hizkuntza ondo menderatzen ez duten turistak edo atzerritarrak (horregatik, gure aplikazioak hizkuntza batzuen artean aukeratzeko aukera du, adibidez, erabilgarria izan dakiekeen ingelesa).



Gure bezeroek aukera-berdintasunaz gozatu nahi dute produktuak erostean, mugitzeko mugarik ez duten pertsonak edo pertsona fisikoak bezala. Gainera, supermerkatuek eskainitako produktuen berrikuntzei buruz dirua aurrezteko eta eguneratzeko aukera bilatzen dute.

Merkatuaren Segmentazioari dagokionez, erabiliko dugun merkatu estrategia, Marketin bereizia izango da, hau da, merkatu guztira heldu nahi dutgu baina segmentazio bakoitzean marketin estrategia desberdina egingo dugu. Eskaintzaren arabera moldatuko gara, hau da, adingutxikoen artean “Tik Tok” edo “Instagram” erabiliko ditugu publizitatea egiteko eta “Facebook” edo “X”, ordea, helduen artean. Adineko jendea erakartzeko beste komunikabide mota batzuk erabiliko ditugu, adibidez, irratian iragarkiak egitea.

Gure zerbitzua mundu guztiari zuzenduta dago, baina bereziki denbora gutxien duten pertsoneri, produktuen prezioak alderatu ahal izateko. Adinekoak, mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonak edo turistak dira gure bezeroetako beste batzuk.